Sin./Fdo.: AMAIA ANTXUSTEGI ZIARDA - 2026-07-21
GIZARTE EKINTZA SAILA-REN FORU DIPUTATUA
DIPUTADO/A FORAL DE DEPARTAMENTO DE ACCIÓN SOCIAL
Sin./Fdo.: ELIXABETE ETXANOBE LANDAJUELA - 2026-07-29
AHALDUN NAGUSIA
DIPUTADO/A GENERAL
Akordioa/Acuerdo: DF 00077/2026 - Data/Fecha: 2026-07-29
BIZKAIKO FORU ALDUNDIA-DIPUTACION FORAL DE BIZKAIA - 2026-07-29
GZko 19.gaia onartuta - Aprobado, asunto 19) de OD



Bizkaiko Foru Aldundiaren FORU DEKRETUA, zeinaren bidez onesten baitira Gizarte Ekintza Sailaren dirulaguntzen oinarri arautzaileak eta deialdi publikoa, kalteberatasun-egoeran eta babesgabezia-arriskuan dauden ume eta nerabeei arreta emateko eta haiek gizarteratzeko jarduerak egiteko Bizkaiko Lurralde Historikoan 2026. urtean.

DECRETO FORAL de la Diputación Foral de Bizkaia por el que se aprueban las bases reguladoras y la convocatoria pública de subvenciones para actividades de atención e integración social del colectivo de infancia y adolescencia en situación de vulnerabilidad y riesgo de desprotección desarrolladas en el Territorio Histórico de Bizkaia durante el año 2026.

Bizkaiko Foru Aldundiak, bere eskumenen eremuan eta Gizarte Ekintza Sailaren bitartez, dirulaguntzak ematen dizkie Bizkaiko Lurralde Historikoan gizarte-zerbitzuak ematen diharduten irabazi-asmorik gabeko entitate pribatuei; horretarako, beharrezko diren diru-kopuruak izendatzen ditu Bizkaiko Lurralde Historikoaren aurrekontu orokorretan, eta dirulaguntzen deialdi publikoak onesten ditu foru-dekretu bidez.

La Diputación Foral de Bizkaia, en el ámbito de sus competencias y a través del Departamento de Acción Social, viene otorgando subvenciones a entidades privadas sin ánimo de lucro dedicadas a la prestación de servicios sociales en el ámbito del Territorio Histórico de Bizkaia, reservando a tales efectos las necesarias consignaciones económicas en los Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Bizkaia y aprobando mediante Decreto Foral las correspondientes convocatorias públicas de subvenciones.

Horrela, Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauan ezarritakoa betetzen da. Izan ere, arau horren arabera, laguntzak eta dirulaguntzak emateko, publikotasunaren, gardentasunaren, lehiakortasunaren, objektibotasunaren, berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioak bete behar dira, bai eta administrazio emaileak ezarritako helburuak betetzeari dagokionez eraginkortasunaren printzipioa eta baliabide publikoak esleitu eta erabiltzeari dagokionez efizientziaren printzipioa ere. Gainera, dirulaguntzak eman baino lehen, oinarri arautzaileak ezartzen dituzten arauak onetsi behar dira.

De esta manera, se da cumplimiento a lo establecido en la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el Régimen Jurídico General de las Subvenciones otorgadas por la Administración Foral, que dispone que la concesión de ayudas y subvenciones se ajustará a los principios de publicidad, transparencia, concurrencia, objetividad, igualdad y no discriminación, de eficacia en el cumplimiento de los objetivos fijados por la administración otorgante y de eficiencia en la asignación y utilización de los recursos públicos y que con carácter previo al otorgamiento de las subvenciones deberán aprobarse las normas que establezcan las bases reguladoras.

Ume eta nerabeei dagokienez, Eusko Legebiltzarraren Haur eta Nerabeen otsailaren 15eko 2/2024 Legeak ezartzen du Euskal Autonomia Erkidegorako erreferentziazko

El marco jurídico de referencia en la Comunidad Autónoma del País Vasco en lo que se refiere a la infancia y adolescencia viene establecido por la Ley del Parlamento Vasco

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: WRW2-3OJS-0WSI-A5XI
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

esparru juridikoa. Lege hori ez da soilik adingabeen babesean oinarritzen, baizik eta bizitzaren eremu guztietan, izan esparru publikoan zein pribatuan, haien eskubideak aitortzen, sustatzen, prebenitzen eta leheneratzen edo itzultzen aurrera egiten du. Horri dagokionez, lege horren 7.1 artikuluan ezarritakoa aipatu behar da; honela dio: «*Pertsona adingabeek beren eskubideak eraginkortasunez egikaritzen dituztela bermatzeko, euskal administrazio publikoek, bakoitzak bere eskumen-eremuan, honako jarduketa-ardatz hauen inguruan antolatu beharko dituzte esku-hartzeak: a) Haurren eta nerabeen ongizatea, beren eskubideak eraginkortasunez egikaritzea eta beren eginbeharrak beren gain hartzea sustatzea [...]*».

Bestalde, 8.1 artikuluak hau xedatzen du: «*[...] sustapentzat jotzen da honako helburu hauek lortzeko politika, estrategia eta jarduketa multzoa: a) Pertsona adingabeei aitortutako eskubideen ezagutza, errespetua eta egikaritze eraginkorra bultzatzea eta sustatzea, bai eta haien eginbeharrak eta erantzukizunak beren gain hartzea ere; b) Gizarte osoa sentsibilizatzea eskubide eta eginbehar horien eta haur eta nerabeen beharren inguruan; c) Pertsona adingabeei aitortutako eskubideak egikaritu ahal izateko beharrezkoak diren baldintza egokiak egon daitezen laguntzea, eta pertsona adingabeek garapen osoa eta harmonikoa lor dezaten*».

Berebat, Legearen 15.1 artikuluak hau ezartzen du: «*Euskal administrazio publikoek lege honetan erantzukizun publikoko zerbitzutzat jotzen ez diren zerbitzuak ematea sustatu edo babestu ahal izango dute, baita beste jarduera batzuk diseinatzea eta egitea ere, baldin eta zerbitzu horiek jarduketa-eremu bakoitzeko plangintza estrategikoan jasotako jarraibide orokorretara egokitzen badira eta irabazi-asmorik gabeko gizarte-ekimeneko entitateek garatzen badituzte, haien forma juridikoa edozein izanda ere*». Bestalde, 60. artikuluak hau xedatzen du: «*Euskal

2/2024, de 15 de febrero, de Infancia y Adolescencia. Esta ley no se centra únicamente en la protección de las personas menores de edad, sino que avanza en el reconocimiento, la promoción, la prevención y la restauración o restitución de sus derechos en los distintos ámbitos de la vida, tanto de la esfera pública como de la privada. A este respecto hay que reseñar lo que se establece en el artículo 7.1 de esta ley, donde se señala que: "*Con el fin de garantizar el ejercicio efectivo de los derechos de las personas menores, las administraciones públicas vascas, en el ámbito de sus respectivas competencias, deberán articular sus intervenciones en torno a los siguientes ejes de actuación: a) La promoción del bienestar de la infancia y la adolescencia, del ejercicio efectivo de sus derechos y de la asunción de sus deberes (…)*".

Por su parte, el artículo 8.1 establece que: "*(…) se entiende por promoción el conjunto de políticas, estrategias y actuaciones orientadas a los siguientes fines: a) Favorecer y fomentar el conocimiento, el respeto y el ejercicio efectivo de los derechos reconocidos a las personas menores, así como la asunción de sus deberes y responsabilidades; b) Sensibilizar a la sociedad, en su conjunto, sobre tales derechos y deberes y sobre las necesidades de la población infantil y adolescente; c) Favorecer la existencia de las condiciones necesarias y adecuadas para que el ejercicio de los derechos reconocidos a las personas menores sea posible, y para que las personas menores alcancen un desarrollo pleno y armónico*".

Así mismo, el artículo 15.1 de la ley establece que: "*las administraciones públicas vascas podrán fomentar o apoyar la prestación de servicios no contemplados en la presente ley como parte de los servicios de responsabilidad pública, así como el diseño y realización de otras actividades, cuando estos se adecuen a las orientaciones generales contempladas en la planificación estratégica de cada uno de los ámbitos de actuación, y sean desarrolladas por entidades de iniciativa social sin ánimo de lucro, independientemente de cuál sea su forma jurídica*". Por otra parte, el artículo 60

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: WRW2-3OJS-0WSI-A5XI
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

*administrazio publikoek, bakoitzak bere eskumen-eremuan, pertsona adingabeen gizarte-inklusioa bultzatuko dute, [...]. Aurreko helburua lortzeko, euskal administrazio publikoek jarduketa hauek garatuko dituzte: [...] prestazioak eta zerbitzuak sustatuko dituzte pertsona adingabe guztiek, bereziki zaurgarritasun-egoeran daudenek, lege honetan jasotako eskubide guztiak eskueran izatea bermatzeko».*

Foru-dekretu honen bidez, dirulaguntzen oinarri arautzaileak eta deialdi publikoa onesten dira, kalteberatasun-egoeran eta babesgabezia-arriskuan dauden ume eta nerabeei arreta emateko eta haiek gizarteratzeko jarduerak egiteko Bizkaiko Lurralde Historikoan 2026. urtean, helbururik behinena izanik babesgabezia gertatzeko arrisku larriko edo oso larriko egoerak prebenitzea eta, hala badagokio, desagerrarazteko.

Euskal Autonomia Erkidego Osorako Erakundeen eta Lurralde Historikoetako Foru Erakundeen arteko Harremanei buruzko azaroaren 25eko 27/1983 Legearen 7.c.1 artikuluak ezartzen du lurralde historikoei dagokiela, nori bere lurraldearen barruan, gizarte-laguntzaren arloan legeria betearaztea. Nolanahi ere, Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde erkideek ere zuzenean jardun dezakete arlo horretan, eta eskumen hori halaber aitortzen da Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legean. Foru-dekretu hau honako arau-dekretu hauetan ezarritakoaren babesean ematen da: 3/1987 Foru Araua, otsailaren 13koa, Bizkaiko Kondaira Lurraldeko Foru Erakundeen Hautapen, Antolaketa, Erregimen eta Funtzionamenduari buruzkoa, eta 67/2025 Foru Dekretua, ekainaren 26koa, Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailaren Erregelamendu Organikoa onartzen duena.

Foru-dekretu honek betetzen ditu erregulazio onaren printzipioak, zeinak Administrazio

señala que: “*Las administraciones públicas vascas, en el ámbito de sus respectivas competencias, promoverán la inclusión social de las personas menores (…), para alcanzar la finalidad anterior, las administraciones públicas vascas desarrollarán las siguientes actuaciones: (…) fomentarán aquellas prestaciones y servicios que garanticen a todas las personas menores el acceso a todos los derechos contenidos en esta ley, en especial a las que se encuentren en situación de vulnerabilidad*”.

Mediante el presente decreto foral se aprueban las bases reguladoras y la convocatoria pública de las subvenciones dirigidas a llevar a cabo actividades de atención e integración social del colectivo de infancia y adolescencia en situación de vulnerabilidad y riesgo de desprotección, desarrolladas en el Territorio Histórico de Bizkaia durante el año 2026, con el objetivo último de prevenir y revertir, en su caso, situaciones de riesgo grave o muy grave de desprotección.

El artículo 7.c.1 de la Ley 27/1983, de 25 de noviembre, de Relaciones entre las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma y los Órganos Forales de sus Territorios Históricos, establece que corresponde a los territorios históricos la ejecución dentro de su territorio de la legislación de las instituciones comunes en materia de asistencia social, sin perjuicio de la acción directa de las instituciones comunes del País Vasco, competencia asimismo reconocida en la Ley 12/2008, de 5 de diciembre, de Servicios Sociales. El presente decreto se aprueba al amparo de lo dispuesto en la Norma Foral 3/1987, de 13 de febrero, sobre Elección, Organización, Régimen y Funcionamiento de las Instituciones Forales del Territorio Histórico de Bizkaia, así como el Decreto Foral 67/2025, de 26 de junio, por el que se aprueba el Reglamento Orgánico del Departamento de Acción Social de la Diputación Foral de Bizkaia.

El presente decreto foral responde a los principios de buena regulación previstos en la

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: WRW2-3OJS-0WSI-A5XI
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean aurreikusten baitira.

Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

Foru-dekretu hau egitean, kontuan hartu da zer jarraibide bete behar den generoaren araberako inpaktuaren aurretiazko ebaluazioa egiteko, oinarritzat harturik zer ezartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuak, zeinaren bidez onesten baita emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina. Horrez gainera, foru-dekretuaren izapidetzean, genero-inpaktuaren aurretiazko ebaluazioari buruzko txostena jaso da, zeina aipatzen baitu, bere 3. artikuluan, honako dekretu honek: Bizkaiko Foru Aldundiaren 112/2024 Foru Dekretua, azaroaren 14koa, zeinaren bidez arautzen baita Bizkaiko Foru Aldundian generoaren araberako eraginaren aurretiazko ebaluazioa.

En lo que corresponde a su elaboración, se han tenido en cuenta las pautas a seguir para la realización de la evaluación previa del impacto en función del género prevista en el Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y vidas libres de violencia machista contra las mujeres y en su tramitación se incorpora el «Informe de Evaluación Previa del Impacto en Función del Género» al que hace referencia el artículo 3 del Decreto Foral 112/2024, de 14 de noviembre, de la Diputación Foral de Bizkaia, por el que se regula la evaluación previa del impacto en función del género en la Diputación Foral de Bizkaia.

Oinarri hauetan ezartzen den araubideko dirulaguntza-jarduerak ez dira estatu-laguntzak, ez baitituzte betetzen Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107.1 artikuluan eskatzen diren baldintza guztiak. Zehazki, ez da betetzen estatu kideen arteko merkataritzari eragiteko baldintza.

Las actuaciones subvencionales cuyo régimen se establece en estas bases no constituyen ayudas de estado, al no reunir la totalidad de los requisitos exigidos por el artículo 107.1 Tratado de Funcionamiento de la Unión Europea. En particular, no se cumple el requisito de afectación al comercio entre Estados miembros.

Halaber, aintzat hartu da zer xedatzen den Bizkaiko Foru Aldundiaren maiatzaren 28ko 63/2019 Foru Dekretuan, zeinaren bidez ezartzen baitira Bizkaiko Foru Aldundiaren jardun-eremuan hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak.

También, se ha tenido en consideración lo dispuesto en el Decreto Foral 63/2019, de 28 de mayo que establece los criterios de uso de las lenguas oficiales en el ámbito de actuación de la Diputación Foral de Bizkaia.

Orobat, kontuan hartu da zer ezartzen den ekainaren 15eko 87/2021 Foru Dekretuan, haren bitartez arautzen baita Bizkaiko Foru Aldundian izaera orokorreko xedapenak egiteko prozedura.

Asimismo, se ha tenido en cuenta lo establecido en el Decreto Foral 87/2021, de 15 de junio por el que se regula el procedimiento de elaboración de disposiciones generales en la Diputación Foral de Bizkaia.

Foru Administrazioak emandako dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen

El artículo 16.1 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: WRW2-3OJS-0WSI-A5XI
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 16.1 artikuluak ahalmena ematen dio Bizkaiko Foru Aldundiari dirulaguntzak foru dekretu bidez emateko oinarri arautzaileak onartzeko, zerbitzu juridikoak txostena egin ondoren; eta martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren 41.1 artikuluak, 5/2005 Foru Araua garatzeko Dirulaguntzen Erregelamendua onartzen duenak, oinarri arautzaileak eta deialdia batera izapidetzeko aukera ezartzen du, eta Bizkaiko Foru Aldundiaren Gobernu Kontseiluak du horiek onartzeko eskumena. Era berean, Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Erakundeen Hautapen, Antolaketa eta Funtzionamenduari buruzko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauaren 39.k) artikuluak xedatzen duenez, foru-diputatuei dagokie Bizkaiko Foru Aldundiari proposatzea, onar ditzan, bere sailari dagozkion gaietan foru-dekretuaren proiektuak. Kasu honetan, Gizarte Ekintzako Departamentuko foru diputatuari dagokio foru dekretuaren proiektua.

jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral habilita a la Diputación Foral de Bizkaia para aprobar las bases reguladoras de la concesión de subvenciones mediante decreto foral, previo informe del servicio jurídico; y el artículo 41.1 del Decreto Foral 34/2010, de 23 de marzo, por el que se aprueba el Reglamento de Subvenciones de desarrollo de la Norma Foral 5/2005 establece la posibilidad de la tramitación conjunta de las bases reguladoras y la convocatoria, residiendo en el Consejo de Gobierno de la Diputación Foral de Bizkaia la competencia para su aprobación. Asimismo, el artículo 39.k) de la Norma Foral 3/1987, de 13 de febrero, sobre Elección, Organización y Funcionamiento de las Instituciones Forales del Territorio Histórico de Bizkaia determina que compete a los diputados forales y a las diputadas forales proponer a la Diputación Foral de Bizkaia, para su aprobación, los proyectos de decreto foral en las materias propias de su Departamento. Así, en el presente caso corresponde a la diputada foral de Acción Social este proyecto de decreto foral.

Horrenbestez, Gizarte Ekintza Saileko foru-diputatuaren ekimenez, eta Bizkaiko Foru Aldundiak eztabaidatu ondoren, honako hau

En su virtud, a iniciativa de la diputada foral del Departamento de Acción Social, previa deliberación de la Diputación Foral de Bizkaia

XEDATZEN DUT:

DISPONGO:

**Artikulu bakarra.** *Oinarri arautzaileak eta deialdia onestea.*

Dirulaguntzen deialdi publikoaren oinarri arautzaileak onestea, kalteberatasun-egoeran eta babesgabezia-arriskuan dauden ume eta nerabeei arreta emateko eta haiek gizarteratzeko Bizkaiko Lurralde Historikoan 2026. urtean. Oinarrien testua beherago txertatu da.

**Artículo único**. *Aprobación de bases reguladoras y convocatoria.*

Aprobar las bases reguladoras de la convocatoria pública de subvenciones para la atención e integración social del colectivo de infancia y adolescencia en situación de vulnerabilidad y riesgo de desprotección desarrolladas en el Territorio Histórico de Bizkaia durante el año 2026, cuyo texto se inserta a continuación.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: WRW2-3OJS-0WSI-A5XI
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

## XEDAPEN GEHIGARRIAK

**Xedapen gehigarri bakarra.** *Aurrekontuko partida.*

Dekretu honetan araututako dirulaguntzak honela izendatutako aurrekontu-partidaren kontura ordainduko dira: 03 saila, 0302 organikoa, 231105 programa, 45100 ekonomikoa, PEP 2007/0595, 2026ko ekitaldiko aurrekontua; partida horren diru-kopurua gehienez ere EHUN ETA BERROGEITA HAMAR MILA (150.000,00) euro izango da.

## DISPOSICIONES ADICIONALES

**Disposición adicional única**. *Partida presupuestaria.*

Las subvenciones reguladas en este Decreto se efectuarán con cargo a la partida presupuestaria consignada como: Departamento (03), Orgánico (0302), Programa (231105), Económico (45100), PEP (2007/0595) del presupuesto del ejercicio 2026, cuya asignación tendrá como límite la cantidad de CIENTO CINCUENTA MIL (150.000,00) euros.

## AZKEN XEDAPENAK

**Azken xedapenetako lehengoa.** *Ahalmenak gaitzea*

Ahalmena ematen zaio Gizarte Ekintza Saileko foru-diputatuari foru-dekretu honetan xedatutakoa garatzeko, betearazteko eta ezartzeko behar diren xedapen guztiak eman ditzan.

**Azken xedapenetako bigarrena.** *Indarrean jartzea.*

1. Foru-dekretu hau *Bizkaiko Aldizkari Ofizial*ean argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

2. Era berean, Gizarte Ekintza Departamentuko foru diputatuari ahalmena ematen zaio eskaerak aurkezteko epea luzatzeko edo ixteko, baldin eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 32.4 artikuluan aurreikusitako kasua gertatzen bada edo aurrekontu-zuzkidura agortzen edo handitzen bada

## DISPOSICIONES FINALES

**Disposición final primera**. *Habilitaciones de facultades.*

Se faculta a la diputada foral del Departamento de Acción Social para dictar cuantas disposiciones resulten procedentes en orden al desarrollo, ejecución y aplicación de lo previsto en el presente Decreto Foral.

**Disposición final segunda**. *Entrada en vigor.*

1. Este Decreto Foral entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial de Bizkaia.

2. Asimismo, se faculta a la diputada foral del Departamento de Acción Social para acordar la ampliación o cierre del plazo de presentación de solicitudes, en caso de que se dé el supuesto previsto en el artículo 32.4 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas o que se agote o incremente la dotación presupuestaria.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: WRW2-3OJS-0WSI-A5XI
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

GIZARTE EKINTZA SAILAREN DIRULAGUNTZEN DEIALDI PUBLIKOAREN OINARRI ARAUTZAILEAK, KALTEBERATASUN-EGOERAN ETA BABESGABEZIA-ARRISKUAN DAUDEN UME ETA NERABEEI ARRETA EMATEKO ETA HAIEK GIZARTERATZEKO BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOAN 2026. URTEAN.

BASES REGULADORAS DE LA CONVOCATORIA PÚBLICA DE SUBVENCIONES PARA LA ATENCIÓN E INTEGRACIÓN SOCIAL DEL COLECTIVO DE INFANCIA Y ADOLESCENCIA EN SITUACIÓN DE VULNERABILIDAD Y RIESGO DE DESPROTECCIÓN DESARROLLADAS EN EL TERRITORIO HISTÓRICO DE BIZKAIA DURANTE EL AÑO 2026.

1. artikulua. *Xedea.*

1. Foru dekretu honen bidez, honako helburu hauetarako dirulaguntzak emateko deialdi publikoa eta oinarri arautzaileak onartzen dira:

a) Bizkaiko Lurralde Historikoan egoera ahulean eta babesik gabe geratzeko arriskuan dauden haur eta nerabeen kolektiboari 2026an ematen zaion arreta eta gizarteratzea, Bizkaiko Foru Aldundiak eman beharrekoa.
b) atzerritar adingabeak Bizkaiko Lurralde Historikora lekualdatzea helburu duten programa humanitarioetan parte hartzen duten pertsonak edo familiak baloratzea, prestatzea eta/edo hautatzea.

2. Dirulaguntza horiek publikotasunaren, gardentasunaren, lehiakortasunaren, objektibotasunaren, berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioei jarraituz emango dira, lehia-konkurrentziako prozeduraren bidez, eta hainbanaketa-sistema aplikatuz adjudikatuko dira, prozesu honetan parte hartzen duen entitate bakoitzak lortutako puntuen proportzioan.

Artículo 1. *Objeto.*

1. Mediante el presente decreto foral se aprueba la convocatoria pública y las bases reguladoras de concesión de las subvenciones de actividades dirigidas a:

a) la atención e integración social del colectivo de infancia y adolescencia en situación de vulnerabilidad y riesgo de desprotección desarrolladas en el Territorio Histórico de Bizkaia durante el año 2026 a conceder por la Diputación Foral de Bizkaia.
b) la valoración, preparación y/o selección de las personas o familias que participen en los programas de carácter humanitario que tienen por objeto el desplazamiento de personas extranjeras menores de edad al Territorio Histórico de Bizkaia.

2. Estas subvenciones se otorgarán bajo los principios de publicidad, transparencia, concurrencia, objetividad, igualdad y no discriminación, mediante el procedimiento de concurrencia competitiva, y se adjudicarán mediante el sistema de prorrateo, de forma proporcional a los puntos obtenidos por cada una de las entidades participantes en este proceso.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: WRW2-3OJS-0WSI-A5XI
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

2. artikulua. *Entitate onuradunak.*

1. Dirulaguntzen onuradun izan daitezke, baldin eta behar bezala eskatzen badute, betekizun hauek betetzen dituzten entitateak:

a) Irabazteko asmorik ez izatea.
b) Egunean izatea bai zerga-betebeharrak, bai zuzenbide publikoko gainerakoak eta bai Gizarte Segurantzarekikoak, maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 12.2 e) artikuluan arauturikoaren arabera. Eskabidea aurkezten denean, dirulaguntza ematen den unean, betebeharra aitortzen den unean eta ordainketa egiten denean, une horietan guztietan bete behar da baldintza hori, eta hala justifikatuko da espedientean, Ogasun eta Finantza Sailak erabakitzen duen moduan.

   Eskabidea aurkezten denean, dirulaguntza ematen denean, ordaindu beharra aitortzen denean edo dirulaguntza ordaintzen denean, dirulaguntzaren onuradun den entitateak adierazitako betebeharrak betetzen ez baditu, hamar egun balioduneko epea emango zaio, agiri bidez frogatu dezan betebehar horiek betetzen dituela, eta ohartaraziko zaio, hori egin ezik, eskatutako dirulaguntza ezetsi egingo dela edo, hala denean, dirulaguntza ezeztatu egingo dela.

c) Bizkaiko Lurralde Historikoko Gizarte Zerbitzuen Foru Erregistroan inskribatuta egotea, dirulaguntzarako eskabideak aurkezteko epea amaitu baino lehen. Erregistro hori Bizkaiko Foru Aldundiaren martxoaren 26ko 62/2002 Foru Dekretuak arautzen du, zeinaren bidez Bizkaiko Lurralde Historikoko Gizarte Zerbitzuen Foru Erregistroa sortu eta berau antolatzeko eta ibiltzeko arauak araupetzen baitira.

Artículo 2. *Entidades Beneficiarias.*

1. Podrán ser beneficiarias de las subvenciones, siempre que lo soliciten debidamente, las entidades que cumplan los siguientes requisitos:

a) Carecer de ánimo de lucro.
b) Hallarse al corriente de las obligaciones tributarias y demás de derecho público y de la Seguridad Social, a tenor de lo regulado en el artículo 12.2.e) de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo. Dicha circunstancia deberá concurrir en el momento de la presentación de la solicitud y mantenerse en el de la concesión, en el del reconocimiento de la obligación y en el pago, lo que se justificará en el expediente del modo que determine el Departamento de Hacienda y Finanzas.

   Cuando en el momento de presentar la solicitud, en el de la concesión, en el del reconocimiento de la obligación, o en el del pago, la entidad beneficiaria de la subvención no se encuentre al corriente de las obligaciones señaladas, se le requerirá para que, en el plazo de diez días hábiles, acredite documentalmente que cumple dichas obligaciones, apercibiéndole de que en caso contrario se desestimará la subvención solicitada o, en su caso, se revocará la subvención.

c) Estar inscritas, antes de que finalice el plazo de presentación de solicitudes de la subvención, en el Registro Foral de Servicios Sociales del Territorio Histórico de Bizkaia regulado por el Decreto Foral 62/2002, de 26 de marzo, de la Diputación Foral de Bizkaia, por el que se crea el Registro Foral de Servicios Sociales del Territorio Histórico de Bizkaia, y se regulan las normas de organización y funcionamiento del mismo.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: WRW2-3OJS-0WSI-A5XI
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

d) Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauaren 42. artikuluan zerrendatutako inguruabarretan ez egotea, ezta aplikatu beharreko araudi espezifikoak dirulaguntza publikoak jasotzea eragozten duen gainerakoetan ere.

d) No incurrir en las circunstancias relacionadas en el artículo 42 de la Norma Foral 4/2018, de 20 de junio, para la igualdad de Mujeres y Hombres, ni en aquellas otras en que la normativa específica aplicable impida la recepción de subvenciones públicas.

e) Sexuan oinarritutako diskriminazioa dela eta, administrazio-zehapena edo zigor penala jaso ez izana zehapen edo zigorrean ezarritako epealdian.

e) No haber sido objeto de sanción administrativa o penal por incurrir en discriminación por razón del sexo, durante el período impuesto en la correspondiente sanción.

f) Egiaztatzea diruz lagundutako jarduerak egingo dituzten langileek Haur eta Nerabeen 2/2024 Legearen 314.2 artikuluan ezarritako betekizuna betetzen dutela; alegia, Sexu Delitugileen eta Gizakien Salerosketako Delitugileen Erregistro Zentralaren ziurtagiri negatiboa daukatela.

f) Verificar que el personal adscrito a la prestación de las actividades subvencionadas cumple con el requisito establecido en el artículo 314.2 de la Ley 2/2024, de Infancia y Adolescencia, de posesión de certificación negativa del Registro Central de Delincuentes Sexuales y Trata de Seres Humanos.

g) Foru-dekretu honetan eta Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauan ezartzen den beste betekizun oro.

g) Cualquier otro requisito que se establezca en este decreto foral y en la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral.

Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 10. artikuluarekin bat etorriz, deialdi honetan onuradun izango dira dirulaguntza emateko oinarri diren jarduera guztiak edo batzuk entitatearen izenean eta haren kontura egiteko konpromisoa hartzen duten entitateko bazkideak ere.

De acuerdo con el artículo 10 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral, en la presente convocatoria también tendrán la consideración de beneficiarias las personas asociadas de la entidad que se comprometan a efectuar la totalidad o parte de las actividades que fundamentan la concesión de la subvención en nombre y por cuenta de la primera.

Pertsona fisiko edo juridiko publiko nahiz pribatuen elkarteak direnean, eta nortasunik ez badute, elkartea ezin izango da desegin harik eta Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzen araubide juridiko orokorra

En caso de agrupaciones de personas físicas o jurídicas, públicas o privadas sin personalidad, no podrá disolverse la agrupación hasta que haya transcurrido el plazo de prescripción previsto en los artículos 35 y 59 de la Norma

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: WRW2-3OJS-OWSI-A5XI
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 35. eta 59. artikuluetan ezarritako preskripzio-epea amaitu arte.

Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el Régimen Jurídico General de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral.

2. Dirulaguntza hauetatik berariaz baztertuta geratuko dira egoera hauetan dauden entitateak:

a) Diruz lagundutako jardueren erabiltzaileen % 50 baino gehiago erakunde jakin bateko kideak edo enplegatuak direnean, bai eta haien senideak direnean ere, edo entitateek beren arreta hertsiki teknikoa ez den irizpide baten mendean jartzen dutenean.

b) Beren jarduerak edo jarduera nagusia osasunaren, kulturaren, lanaren eta hezkuntzaren edo udaletako oinarrizko gizarte-zerbitzuen berezko arloan soil-soilik garatzen dituztenean.

c) Sexuen arteko desberdinkeriak zuzendu nahi diren kasuetan izan ezik, ezin izango dira onuradun izan onarpen-prozesuan edo funtzionamenduan pertsonak sexuaren arabera diskriminatzen dituzten elkarte edo erakundeak, ezta sexuan oinarritutako diskriminazioa dakarren jardueraren bat egiten dutenak ere.

2. Quedan expresamente excluidas de estas subvenciones las siguientes entidades:

a) Aquellas en las que más del 50% de las personas usuarias de las actividades subvencionadas sean miembros o empleados de una Institución determinada, así como los familiares de éstos/as, o condicionen su atención a un criterio que no sea estrictamente técnico.

b) Sus actividades, o su actividad principal esté encuadrada única y exclusivamente dentro del ámbito propio de la Sanidad, Cultura o Trabajo y Educación o de los Servicios Sociales de Base de los Ayuntamientos.

c) Salvo en los supuestos en que se busque un efecto de corrección de desigualdades entre sexos, no podrán obtener la condición de beneficiarias aquellas asociaciones y organizaciones que discriminen por razón de sexo en su proceso de admisión o en su funcionamiento ni aquellas que realicen algún tipo de actividad que sea discriminatoria por razón de sexo.

Ezinbestekoa izango da betekizun horiek betetzea deialdiaren lehiaketan parte hartu ahal izateko. Betekizun horiek betetzen direla egiaztatzeko, eskabideak aztertu aurretik, foru-dekretu honen 10. artikuluan adierazten den batzorde teknikoak aurrebaluazio bat egingo du.

El cumplimiento de estos requisitos será imprescindible para participar en la fase de concurso de la convocatoria. La verificación de su cumplimiento se realizará en una fase de preevaluación anterior al estudio de las solicitudes por parte de la Comisión Técnica a la que se refiere el artículo 10 del presente decreto foral.

Betekizun horietako edozein ez betetzea dirulaguntza-eskaera ez onartzeko arrazoi izango da.

El incumplimiento de cualquiera de los requisitos señalados será motivo de inadmisión de la solicitud de la subvención.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: WRW2-3OJS-OWSI-A5XI
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

3. artikulua. *Dirulaguntzarik jaso ezin duten jarduerak.*

a) Haurtzaindegi publikoak nahiz pribatuak.

b) Familia-bitartekaritzako zerbitzuak.

c) Zentroak mantentzea eta esku-hartze programen berezko jarduerak egitea, baldin eta dagoeneko Administrazio publikoko edozein entitaterekin kontratuak eta/edo hitzarmenak badituzte.

d) Hezkuntzarekin, aisia eta astialdiarekin, kulturarekin, lanarekin eta/edo osasunarekin zerikusia duten programak eta proiektuak.

e) Udalen eskumeneko programa eta zerbitzuak, kasuan kasuko udalean haietarako eskaria oso-osorik beteta dagoenean.

f) Gizarte Ekintza Sailaren zerbitzuek edo Bizkaiko Foru Aldundiko beste edozein sailetako zerbitzuek inplementatutako programen bidez garatzen ari diren jarduerak eta zerbitzuak.

g) Boluntarioak prestatzeko egiten diren jarduerak.

Artículo 3. *Actividades no subvencionables.*

a) Las guarderías infantiles públicas o privadas.

b) Los servicios de mediación familiar.

c) El mantenimiento de centros y realización de actividades propias de programas de Intervención que ya sean objeto de contratos y/o convenios con cualquier entidad de la administración pública.

d) Los programas y proyectos de carácter exclusivamente educativo, de ocio y tiempo libre, cultural, laboral y/o sanitario.

e) Los Programas y Servicios cuyo desarrollo sea de competencia municipal y esté cubierta la totalidad de la demanda el municipio correspondiente.

f) Las actividades y servicios que estén siendo desarrolladas a través de programas implementados por los Servicios del Departamento de Acción Social o de cualquier otro Departamento de la Diputación Foral de Bizkaia.

g) Las actividades destinadas a la formación del voluntariado.

4. artikulua. *Eskabideen aurkezpena eta epea.*

1. Entitatearen estatutuetan ezarritakoaren arabera entitatearen gobernu-organoaren legezko ordezkari direnek aurkeztu behar dituzte dirulaguntza hauek jasotzeko eskabideak, edo, bestela, horretarako ahaldunduak direnek.

2. Eskabideak aurkezteko epea 15 egun baliodunekoa izango da, foru-dekretu hau *Bizkaiko Aldizkari Ofiziale*an argitaratu eta

Artículo 4. *Presentación de solicitudes* y plazo.

1. Las solicitudes de subvención deberán ser presentadas por las personas representantes legales del órgano de gobierno de la entidad según lo establecido en sus estatutos, o por las personas apoderadas al efecto.

2. El plazo de presentación de solicitudes será de 15 días hábiles contados a partir del día siguiente al de la publicación del presente

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: WRW2-3OJS-0WSI-A5XI
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

hurrengo egunetik aurrera zenbatuta.
Eskabideak, ezarritako epetik kanpo aurkeztuz gero, ez dira izapidetzeko onartuko.

Decreto Foral en el Boletín Oficial de Bizkaia.
La presentación de las solicitudes fuera del plazo establecido será causa de inadmisión a trámite.

3. Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez aurkeztu beharko dira eskabideak, horretarako ezarritako prozedura baliatuz.

3. Las solicitudes deben ser presentadas por la sede electrónica de la Diputación Foral de Bizkaia a través del procedimiento que se establezca al efecto.

Eskabidea aurkezten duen pertsonak identifikazio eta sinadura elektronikoko sistema bat izan behar du.

La persona que presente la solicitud debe estar en posesión de un sistema de identificación y firma electrónico.

4. Eskabideak eta/edo erantsitako dokumentazioak akatsik edo omisiorik izanez gero, entitate eskatzaileari errekerimendua egingo zaio, urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68.1. artikuluan ezarritakoarekin bat, hamar (10) egun balioduneko epean, egoitza elektronikoan jakinarazi eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, falta zuzendu dezan edo aurkeztu ez dituen nahitaezko dokumentuak eman ditzan, eta adieraziko zaio ezen, hala egin ezean, eskaeran atzera egindakotzat joko dela, horretarako ebazpena aipaturiko legearen 21.1 artikuluan jasotako moduan eman ondoren.

j) Utilizar las dos lenguas oficiales en todos los folletos, carteles o cualquier otro soporte utilizado para dar publicidad de su actividad a la ciudadanía.

k) Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauaren 46. artikuluan aurreikusitakoa betetzea, salbu eta interes publikoko arrazoiek justifikatzen

k) Cumplir con lo previsto en el artículo 46 de la Norma Foral 4/2018, de 20 de junio para la igualdad de Mujeres y Hombres, salvo que razones de interés público justifiquen la

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: WRW2-3OJS-0WSI-A5XI
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

badute hala ez egitea; halakoan, justifikazio-txostena aurkeztu beharko du organo proposatzaileak.

exención de estas obligaciones en cuyo caso el órgano proponente deberá presentar informe justificativo.

l) Ez erabiltzea hizkuntza eta irudi sexistarik sortzen diren agiri eta euskarrietan.

l) Realizar un uso no sexista de todo tipo de lenguaje e imágenes en los documentos y soportes que se produzcan.

m) Diruz lagundutako jardueraren jarduketa-esparru guztietan genero-berdintasuna betetzen dela zaintzea.

m) Velar por el cumplimiento de la condición de igualdad de género en todos los ámbitos de actuación de la actividad subvencionada.

n) Diruz lagundutako jardueraren onuradunak sexuaren arabera bereiztea; beharrezkoa bada, emaitzen analisia egitea, eta emakume eta gizonen artean berdintasun handiagoa lortzeko etorkizunean hartu beharreko neurriak ere aztertzea.

Era berean, datuak sexuaren arabera bereizi beharko dira pertsonei buruzko edozein estatistikatan; hori guztia Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauaren 24. artikuluaren babesean.

n) Realizar una desagregación por razón de sexo de las personas destinatarias de la actividad subvencionada y, en su caso, un análisis de los resultados y medidas a adoptar en el futuro para conseguir una mayor igualdad entre hombres y mujeres.

Así mismo, se deberá desagregar los datos por sexo en cualquier estadística referida a personas que se genere, todo ello al amparo del artículo 24 de la Norma Foral 4/2018, de 20 de junio, para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

o) Bizkaiko Gardentasunari buruzko otsailaren 17ko 1/2016 Foru Arauaren II. tituluan jasotako publizitate aktiboaren eskakizunak betetzea.

o) Cumplir las exigencias de publicidad activa contenidas en su Título II de la Norma Foral 1/2016, de 17 de febrero, de Transparencia de Bizkaia.

p) Bi arau hauek betetzea: batetik, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016/679 (EB) Erregelamendua, zeinak datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoen babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzko arauak ezartzen baititu eta 95/46/EE Zuzentaraua indargabetzen baitu, eta, bestetik, Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa.

p) Cumplir con el Reglamento (UE) 2016/679 del parlamento europeo y del consejo relativo a la protección de las personas físicas en lo que respecta al tratamiento de datos personales y a la libre circulación de estos datos y por el que se deroga la Directiva 95/46/CE y la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales y garantía de los derechos digitales.

q) Jasotako dirulaguntzak gastua egin arte sortzen dituen interesak dirulaguntzaren xederako berrinbertitzea.

q) Reinvertir los intereses devengados por la subvención recibida hasta el momento del gasto, en el objeto de la subvención.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: WRW2-3OJS-0WSI-A5XI
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

r) Oztopo arkitektonikoak edota komunikaziorako oztopoak ezabatzeko lan egitea edo laguntzea dirulaguntzaren xede den jarduera egiten denean, ematen diren zerbitzuetan eta egiten diren jarduera eta ekitaldietan.

r) Trabajar o colaborar para eliminar barreras arquitectónicas y de comunicación en todos los servicios que se presten y en las actividades y eventos que se realicen en el desarrollo de la actividad objeto de subvención.

2. Gizarte Ekintza Sailak eskubidea izango du deialdian emandako dirulaguntzak eskaturiko helburuetara bideratzen direla ikuskatu eta kontrolatzeko, eta, beraz, egokiak iruditzen zaizkion azterketa- eta kontrol-sistemak erabili ahal izango ditu. Horretarako, entitate eskatzaile guztiak ikuskatu ahal izango dira, baita dirulaguntzak eman aurretik ere, indarrean den araudia betetzen duten ala ez egiaztatzeko.

2. El Departamento de Acción Social se reserva la facultad de inspección y control sobre el destino y la adecuación de las subvenciones a las finalidades para las que fueron concedidas y podrá, en consecuencia, utilizar los sistemas de evaluación y control que considere oportunos. A este fin, podrán ser objeto de inspección todas las entidades solicitantes, incluso con carácter previo a la concesión de las subvenciones, de modo que pueda comprobarse su adecuación a la normativa vigente.

15. artikulua. *Justifikazioa.*

1. Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailak emandako dirulaguntza justifikatzeko, justifikazio-kontua aurkeztu beharko da, zeina martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren 57. artikuluan arautzen baita. Dekretu horren bidez, Dirulaguntzen Erregelamendua onesten da, Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Araua garatzen duena.

2. Aurreko guztia aintzat hartuta, entitate onuradunek justifikazioaren betebeharra 2027ko urtarrilaren 11 ko 00:00etatik martxoaren 31ko 13:30ra bitartean bete beharko dute, egoitza elektronikoan dirulaguntzaren justifikazio-kontua aurkeztuz.

3. Dirulaguntzari egotz dakizkiokeen jardueraren gastuak 2026ko ekitaldi ekonomikoan egin beharko dira, eta aldi horren barruan garatutako jarduerari lotuta egon

Artículo 15. *Justificación.*

1. La subvención otorgada por el Departamento de Acción Social de la Diputación Foral de Bizkaia se justificará mediante la modalidad de cuenta justificativa regulada en el artículo 57 del Decreto Foral 34/2010, de 23 de marzo, por el que se aprueba el Reglamento de Subvenciones, de desarrollo de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el Régimen Jurídico General de las Subvenciones otorgadas por la Administración Foral.

2. De acuerdo con lo anterior, las entidades beneficiarias procederán a cumplir con la obligación de justificación desde las 00:00h del 11 de enero hasta las 13:30 h del 31 de marzo de 2027, mediante la presentación, a través de la sede electrónica, de la cuenta justificativa de la subvención.

3. Los gastos de la actividad aplicables a la subvención deberán ser realizados dentro del ejercicio económico 2026 y referidos a la actividad desarrollada durante este periodo.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: WRW2-3OJS-0WSI-A5XI
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

beharko dute.

4. Honako hauek osatzen dute justifikazio-kontua:

a) Dirulaguntza ematerakoan ezarritako baldintzak bete direla justifikatzen duen jarduketa-memoria, egindako jarduerak eta lorturiko emaitzak adierazita. Memoria horretan, gainera, amaierako txostena jaso behar da, jarduera zenbateraino bete den, nola garatu den eta zer helburu lortu diren adierazteko datu kualitatiboak eta kuantitatiboak jasota, baita alderdi hauek zehaztuta ere:

1) Egindako jardueraren deskripzioa.
2) Zuzeneko arreta jaso duten pertsonei buruzko informazioa, baita zeharkako onuradunen estimazioa ere, datuak sexuaren arabera bereizita.
3) Ea jarduerak bi sexuetan izan duen eraginik, eta, hala izan bada, nolakoa izan den haietariko bakoitzean.
4) Ebaluazio-adierazleak.
5) Jarduerak gauzatzean gertatu diren gorabehera adierazgarrienak.
6) Jarduera gauzatzeko jarri diren giza baliabideak eta baliabide materialak.
7) Hasiera-data eta amaiera-data.
8) Ordu kopurua (astekoak, hilekoak... diren adierazita)
9) Egin beharreko aldaketak edo hobekuntzak.
10) Emaitzen azterketa eta etorkizunean emakumeen eta gizonen berdintasun handiagoa lortzeko hartu beharreko neurriak.

b) Diruz lagundutako jardueraren kostua justifikatzeko memoria ekonomikoa, eduki hauek jasota:

1) Diruz lagundutako jarduerari egotzitako sarrera eta gastuen egoera-orria.

4. La cuenta justificativa estará conformada por:

a) Una memoria de actuación justificativa del cumplimiento de las condiciones impuestas en la concesión de la subvención, con indicación de las actividades realizadas y de los resultados obtenidos, debiendo recogerse en la misma un informe final con datos cuantitativos y cualitativos sobre la cobertura de la actividad, el desarrollo y los objetivos alcanzados, señalando los siguientes aspectos:

1.º Descripción de la actividad desarrollada.
2.º Información relativa a las personas directamente atendidas, así como estimación de personas beneficiarias indirectas, con los datos desagregados por sexo.
3.º Si la actividad ha tenido influencia en ambos sexos y, si es así, en qué se ha traducido esa influencia en cada uno/a de ellos/as.
4.º Indicadores de evaluación.
5.º Incidencias más significativas habidas en la ejecución.
6.º Recursos humanos y materiales puestos a disposición de la actividad.
7.º Fecha de inicio y finalización.
8.º Número de horas (indicando si son semanales, mensuales...)
9.º Cambios o mejoras a introducir.
10.º Análisis de los resultados y medidas a adoptar en el futuro para conseguir una mayor igualdad entre mujeres y hombres.

b) Una memoria económica justificativa del coste de la actividad subvencionada que contendrá:

1.º Un estado de ingresos y gastos imputados a la actividad subvencionada.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: WRW2-3OJS-0WSI-A5XI
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

2) Aurreko apartatuan aipatutako gastuen egoera-orria osatzen duen partida bakoitzeko, diruz lagundutako jardueraren gastuak sailkatzeko zerrenda bat, hartzekoduna eta agiria identifikaturik, bai eta haren zenbatekoa, jaulkipen-data eta, hala badagokio, zenbateko hori zein egunetan ordaindu zen ere. Dirulaguntza hori aurrekontu baten arabera eman bada, aurrekontuan izandako desbideratzeak zehaztu behar dira.

3) Sarreren egoera-orria osatzen duen partida bakoitzeko, diruz lagundutako jarduera finantzatu duten beste dirulaguntza, laguntza, sarrera edo baliabide batzuen zerrenda xehatua, bai eta eskatzen den finantzaketa propioarena ere, bakoitzaren zenbatekoa eta jatorria adierazita.

4) Erakunde eskatzaileko pertsona batek izenpetutako zinpeko aitorpena, behar besteko ahalordea duena, proiektuari egotz dakizkiokeen beste diru-sarrerarik ez dagoela adieraziz, 3. atalean berariaz jasotakoez gain.

5) Hala badagokio, 2. atalean aipatzen den zerrendan sartzen diren kostu orokorrak eta/edo zeharkakoak banatzeko irizpideak adieraztea

6) Hala badagokio, itzulketaren ordainketa-gutuna, aplikatu gabeko soberakinik badago, bai eta haien ondoriozko interesena ere. Gizarte Ekintza Saileko Administraziorako eta Gizarte Sustapenerako Zuzendaritza Nagusiak hasi eta izapidetuko du itzulketa egiteko prozedura, entitate onuradunari entzun ondoren.

2.º Para cada una de las partidas que componen el estado de gastos señalado en el apartado anterior, una relación clasificada de los gastos de la actividad subvencionada, con identificación de la persona acreedora y del documento, su importe, fecha de emisión y en su caso, fecha de pago. En caso de que la subvención se otorgue con arreglo a un presupuesto, se indicarán las desviaciones acaecidas.

3.º Relación detallada por cada una de las partidas que componen el estado de ingresos, de las subvenciones, ayudas, ingresos o recursos, incluida la financiación propia exigida, en su caso, que hayan financiado la actividad subvencionada, con indicación del importe y su procedencia.

4º Declaración jurada suscrita por una persona de la entidad solicitante con poder suficiente en la que se manifieste que no existen otros ingresos imputables al proyecto al margen de los expresamente recogidos en el apartado tercero.

5º Indicación, en su caso, de los criterios de reparto de los costes generales y/o indirectos incorporados en la relación a que se hace referencia en el apartado 2º.

6.º En su caso, la carta de pago de reintegro en el supuesto de remanentes no aplicados, así como de los intereses derivados de los mismos. El procedimiento de reintegro se iniciará y tramitará por la Dirección General de Administración y Promoción Social del Departamento de Acción Social, previa audiencia a la entidad beneficiaria.

Ezin izango da egotzi jardueraren kostu osoaren % 10 baino gehiago zeharkako kostu gisa.

No se podrá imputar más del 10% del coste total de la actividad en concepto de costes indirectos.

5. Dirulaguntza justifikatzeko eskatzen diren agiriak aurkeztu eta agiri guztiak daudela

5. Una vez se haya presentado la documentación exigida para la justificación de

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: WRW2-3OJS-OWSI-A5XI
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

ziurtatu ondoren, dirulaguntza ematen duen organoak gastuen zerrendan ageri diren fakturak edo merkataritzako trafiko juridikoan froga-balio baliokidea edo eraginkortasun administratiboa duten gainerako agiriak eta, hala badagokio, ordainketa egiaztatzeko agiriak eskatu ahal izango ditu. Laginketa-tekniken bidez egingo da aipatutako frogagirien egiaztapena, dirulaguntza egoki aplikatu dela ondorioztatzeko ebidentzia nahikoa lortzeko; horretarako, aukeratutako gastu-frogagiriak bidaltzeko eskatu ahal izango zaio onuradunari, bai eta ordainketa-frogagiriak bidaltzeko ere.

la subvención y comprobado que dicha documentación se halla completa, el órgano concedente podrá solicitar las facturas o documentos de valor probatorio equivalente en el tráfico jurídico mercantil o con eficacia administrativa incorporados en la relación de gastos y en su caso, la documentación acreditativa del pago. La comprobación de los citados justificantes se realizará mediante la aplicación de técnicas de muestreo para obtener evidencia razonable sobre la adecuada aplicación de la subvención, en cuyo caso, se podrá requerir a la persona beneficiaria la remisión de los justificantes de gasto seleccionados, así como el de su pago.

Horrela eskatuz gero, diruz lagundutako jardueraren gastuak justifikatzen dituzten jatorrizko agiriak eta haien kopiak aurkeztu beharko dira, ordenatuta eta zenbakituta; horrekin batera, haien guztien zerrenda bat aurkeztu behar da.

En el caso en que fuera así requerido, se deberán aportar los documentos originales y copias que justifiquen los gastos de la actividad subvencionada ordenados y numerados, adjuntando una relación de los mismos.

6. Faktura horiek bete egin behar dituzte fakturazio-betebeharrak arautzen dituen Bizkaiko Foru Aldundiaren urtarrilaren 22ko 4/2013 Foru Dekretuko 6. artikuluan ezarritako betekizunak.

6. Las facturas deberán cumplir los requisitos establecidos en el artículo 6 del Decreto Foral 4/2013, de 22 de enero, de la Diputación Foral de Bizkaia, por el que se regulan las obligaciones de facturación.

Salbuespen gisa, entitate onuradunek emandako ziurtagiriek balioko dute gastuak justifikatzeko, baldin eta faktura erraztuak edo arautegia betetzen duten beste frogagiri batzuk bakarrik badauzkate. Gastu-kontzeptuaren arabera batuta eta haien zenbateko osoa adierazita aurkeztuko dira.

Excepcionalmente, servirán como justificantes de gastos las certificaciones emitidas por las entidades beneficiarias de la subvención, cuando solo se disponga de facturas simplificadas u otros documentos justificativos que cumplan la normativa, que se agruparán por concepto de gasto, indicando la cuantía total de los mismos.

Halaber, entitate onuradunak dirulaguntzen deialdi honen xedearekin zerikusia daukan informazio eta dokumentazio osagarri guztia aurkeztu beharko du hala eskatzen bazaio.

Así mismo, la entidad beneficiaria estará obligada a facilitar cuanta información y documentación complementaria le sea solicitada en relación con el objeto de la presente convocatoria de subvenciones.

16. artikulua. *Entitate onuradunak dirulaguntza bere borondatez itzultzea.*

Artículo 16. *Devolución voluntaria de la subvención a iniciativa de la entidad beneficiaria.*

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: WRW2-3OJS-0WSI-A5XI
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Entitate onuradunaren ekimenez dirulaguntzaren zati bat edo osoa itzultzeko, beharrezkoa izango da aurretik ordainketa-gutun egokia eskatzea, Dirulaguntzen Erregelamendua onesten duen Bizkaiko Foru Aldundiaren martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren 76. artikuluan ezarritakoaren arabera.

La entidad beneficiaria podrá instar voluntariamente la devolución de la totalidad o parte de la subvención concedida para lo que solicitará la emisión de la correspondiente carta de pago conforme a lo dispuesto en el artículo 76 del Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 34/2010, de 23 de marzo, por el que aprueba el Reglamento de Subvenciones.

17. artikulua. *Itzultzea.*

1. Bizkaiko Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 33. artikuluan ezarritako kasuetan, onuradunak jasotako zenbatekoa eta dagozkion berandutze-interesak itzuli beharko ditu.

2. Baldintzetako bat edo batzuk ez betetzeak edo epearen barruan jardueraren zati bat bakarrik egiteak (betiere, zalantza barik egiaztatzen bada onuradunak konpromisoak betetzeko asmoa duela) berekin ekarriko du laguntza itzuli behar izatea. Itzulketa hori kalkulatzeko, dirulaguntza emateko orduan kontuan hartutako baremo eta irizpideen araberako proportzionaltasun-irizpidea erabiliko da, dirulaguntza emateko ezarritako mugen barruan.

3. Berandutze-interesak kalkulatzeko, dirulaguntza ordaintzen den unetik gastuaren justifikazio-kontua aurkezten den egunera arte zenbatuko da; betiere jarduera oso-osorik bete dela egiaztatzen bada edo, halakorik egiten ez bada, konpromisoak zalantzarik gabe erabat betetzeko jokabidea ikusten bada.

Artículo 17. *Reintegro.*

1. Procederá el reintegro de la ayuda recibida y los intereses de demora correspondientes, por parte de los beneficiarios en los supuestos señalados en el artículo 33 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el Régimen Jurídico General de las Subvenciones otorgadas por la Administración Foral de Bizkaia.

2. El cumplimiento parcial de las condiciones o la realización en plazo de solo una parte de la actividad, siempre que se acredite una actuación de la persona beneficiaria inequívocamente tendente a la satisfacción de los compromisos, dará lugar al reintegro, aplicándose el criterio de proporcionalidad en relación con el baremo y criterios tomados en consideración para su concesión, y dentro de los límites establecidos para su otorgamiento.

3. El cálculo de los intereses de demora se realizará desde el momento del pago de la subvención hasta la fecha de presentación de la cuenta justificativa del gasto, siempre que se acredite el cumplimiento total de la actividad o, de no hacerlo, se observe una actuación inequívocamente tendente a la satisfacción de sus compromisos.

18. artikulua. *Zehapen-araubidea.*

1. Entitate onuradunak Foru Administrazioak

Artículo 18. *Régimen sancionador.*

1. La comisión por parte de la entidad

Egiaztatpen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: WRW2-3OJS-0WSI-A5XI
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

emandako dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren IV. tituluan («Dirulaguntzei buruzko arau-hauste eta zehapen administratiboak») ezarrita dauden arau-hausteetako bat egiten badu, zehapena ezarriko zaio, dagokion zehazpen-espedientea hasi ondoren, honako arau hauetan ezarritakoaren arabera: 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena; 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena, eta 1/2023 Legea, martxoaren 16koa, Euskal Administrazio Publikoen Zehatzeko Ahalari buruzkoa.

beneficiaria de alguna de las infracciones previstas en el título IV, «Infracciones y sanciones administrativas en materia de subvenciones», de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, será sancionada, previa incoación del expediente sancionador, conforme a lo dispuesto en Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, Ley 40/2015, del Régimen Jurídico del Sector Público, y según lo establecido en Ley 1/2023, de 16 de marzo de la potestad sancionadora de las Administraciones Públicas Vascas

2. Zehapena ezartzen zaion arren, bidegabe lortutako dirulaguntzaren zenbatekoa itzuli beharko du onuradunak.

2. La imposición de sanción será independiente de la obligación de reintegro de la cantidad indebidamente obtenida en concepto de ayuda.

19. artikulua. *Jakinarazpen elektronikoa.*

Entitateei egin beharreko jakinarazpenak bitarteko elektronikoen bidez egingo zaizkie, Administrazio Publikoen Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 14. artikuluan eta 40. artikuluan eta hurrengoetan ezartzen denarekin bat.

Bitarteko elektronikoen bidez egin beharreko jakinarazpenak Bizkaiko Foru Aldundiaren Egoitza Elektronikoan agertuz egingo dira (www.ebizkaia.eus), Administrazio Elektronikoari buruzko maiatzaren 5eko 62/2015 Foru Dekretuan xedatutakoaren arabera.

Artículo 19. *Notificación electrónica.*

Las notificaciones a las entidades interesadas se realizarán por medios electrónicos, de acuerdo con lo previsto en el artículo 14 y en el artículo 40 y siguientes de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas

Las notificaciones por medios electrónicos se practicarán mediante comparecencia en la Sede Electrónica de la Diputación Foral de Bizkaia (www.ebizkaia.eus) de conformidad con lo establecido en el decreto foral de la Diputación Foral de Bizkaia 62/2015, de 5 de mayo, de Administración Electrónica.

20. artikulua. *Aplikatu beharreko araudia.*

Foru-dekretu honetan arautzen diren dirulaguntzek, dekretuari berari jarraitzeaz gainera, beste hauei ere jarraitu behar diete: Foru Administrazioak ematen dituen

Artículo 20. *Normativa aplicable.*

Las subvenciones reguladas por el presente decreto foral se regirán, además de por lo previsto en el mismo, por lo establecido en la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: WRW2-3OJS-OWSI-A5XI
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Araua; martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretua, zeinaren bidez onesten baita Dirulaguntzen Erregelamendua, aipatutako 5/2005 Foru Araua garatzen duena, eta aplikatzekoak diren gainerako arau guztiak.
Halaber, foru-dekretu honetan aurreikusi ez den guztirako, modu osagarrian aplikatzekoak izango dira Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen arau orokorrak, bai eta arau horiekin bat datozen eta aplikatzekoak diren gainerako indarreko lege-xedapen guztiak ere.

se regula el Régimen Jurídico General de las Subvenciones otorgadas por la administración foral, así como por el Decreto Foral 34/2010, de 23 de marzo, por el que se aprueba el reglamento de subvenciones de desarrollo de la Norma Foral 5/2005 anterior y por el resto de las normas que resulten de aplicación.
Asimismo, en todo lo no previsto en el presente decreto foral, serán de aplicación supletoria las normas generales contenidas en Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, así como las correspondientes disposiciones legales vigentes que resulten de concordante y pertinente aplicación.

21. artikulua. *Dirulaguntzen onuradun diren entitateetako arduradunen datu pertsonalen tratamendua.*

1. Datu pertsonalak arau hauen arabera tratatuko dira: 2016/679 (EB) Erregelamendua, apirilaren 27koa, datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoen babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzko arauak ezartzen dituena; 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa, bai eta Haur eta Nerabeen otsailaren 15eko 2/2024 Legearen I. tituluko 2. kapitulua ere.

2. Tratamenduaren arduraduna Gizarte Ekintza Saileko Administraziorako eta Gizarte Sustapenerako Zuzendaritza Nagusia da (Ugaskobidea 3 bis, 48014 Bilbo), eta datuak babesteko ordezkaria, berriz, Herri Administraziorako eta Erakunde Harremanetarako Saileko Informazioaren Segurtasuna eta Datu Babesa Bideratzeko Ataleko burua (Kale Nagusia 2, 6, 48001 Bilbo).

3. Tratamendu hori ahal publikoak baliatzeko eta legezko betebeharrak betetzeko egingo da.

Artículo 21. *Tratamiento de datos personales de las personas responsables de las entidades beneficiarias de la subvención.*

1. Los datos personales serán tratados de conformidad a lo establecido en el Reglamento (UE) 2016/679, de 27 abril de 2016, relativo a la protección de las personas físicas en lo que respecta al tratamiento de datos personales y a la libre circulación de estos datos y la Ley Orgánica 3/2018 de 5 de diciembre de Protección de Datos Personales y garantía de los derechos digitales, así como el capítulo 2º del Título I de la Ley 2/2024, de, 15 de febrero, de Infancia y Adolescencia.

2. El responsable del tratamiento es la Dirección General de Administración y Promoción Social del Departamento de Acción Social (Ugaskobidea 3 bis 48014 Bilbao) y la persona delegada de Protección de Datos es la Jefatura de la Sección de Seguridad de la Información y Protección de Datos del Departamento de Administración Pública y Relaciones Institucionales (Gran Vía, 2, 6º, 48001 Bilbao).

3. Dicho tratamiento se realizará en el ejercicio de potestades públicas y el cumplimiento de obligaciones legales.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: WRW2-3OJS-0WSI-A5XI
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

4. Datuak interesdunari edo haren ordezkariari eskatuko zaizkio, baita beste administrazio, organismo, erregistro edo entitate publiko edo pribatu batzuei ere, legeak ezartzen dituen mugen barruan.

4. Los datos serán obtenidos de la persona interesada, o su representante, y de otras administraciones, organismos, registros o entidades públicas o privadas, dentro de los límites legales establecidos.

5. Bildutako datuak dekretu honetan arauturiko dirulaguntzak kudeatzeko erabiliko dira.

5. Los datos recabados serán utilizados para la gestión de las subvenciones reguladas en este decreto.

6. Ez da datu pertsonalik lagako, non eta ez dagoen horretarako betebehar legalik edo interesdunaren baimenik. Horrez gainera, ez da aurreikusten hirugarren herrialdeetara edo nazioarteko erakundeetara datu-transferentziarik egitea.

6. No se realizarán cesiones de datos personales, salvo por obligación legal o consentimiento de la persona interesada. Tampoco se prevén transferencias a terceros países u organizaciones internacionales.

7. Interesdunak eskubidea du bere datuak eskuratzeko, zuzendu edo ezaba daitezela eskatzeko edota haien tratamendua mugatu edo aurkaratzeko, idazki bat bidaliz Informazioaren Segurtasuna eta Datu Babesa Bideratzeko Atalera.

7. La persona interesada tiene derecho a acceder a sus datos, solicitar su rectificación, supresión o la limitación u oposición al tratamiento mediante escrito dirigido a la Sección de Seguridad de la Información y Protección de Datos.

8. Eskubide horietakoren bat baliatzeko aukera mugatu daiteke baldin bateraezina bada botere publikoen jardunarekin edo aplikagarria den araudiaren arabera legezko betebeharrak betetzearekin.

8. El ejercicio de alguno de estos derechos puede verse limitado cuando sea incompatible con el ejercicio de los poderes públicos o con el cumplimiento de obligaciones legales de acuerdo con la legislación aplicable.

9. Datu pertsonalen tratamenduari buruzko informazio zehatza Tratamendu Jardueren Erregistroan (TJE) kontsultatu dezakezu, Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan.

9. Puede consultar la información detallada sobre el tratamiento de los datos personales en el Registro de Actividades de Tratamiento (RAT) en la sede electrónica de la Diputación Foral de Bizkaia.

22. artikulua. *Diruz lagundutako jardueran parte hartzen duten pertsonen datu pertsonalen tratamendua.*

Artículo 22. *Tratamiento de datos personales de las personas que participan en la actividad subvencionada.*

1. Foru-dekretu honetan araututako dirulaguntzaren onuradun suertatzen den entitatea, bera izango da diruz lagundutako jardueratik eratorritako datu pertsonalen tratamenduen arduradun bakarra. Bereziki,

1. La Entidad beneficiaria de la subvención objeto de este decreto foral, será la única responsable de los tratamientos de los datos personales, debiendo cumplir, particularmente, con los principios y obligaciones que pudieren

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: WRW2-3OJS-OWSI-A5XI
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

nahitaez bete beharko ditu bi arau hauetatik etor litezkeen printzipio eta betebeharrak: batetik, 2016/679 (EB) Erregelamendua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, apirilaren 27koa, datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoen babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzko arauak ezartzen dituena eta 95/46/EE Zuzentaraua indargabetzen duena, eta, bestetik, 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa.

2. Esandakoari jarraikiz, hartuko ditu zenbat ere neurri tekniko eta antolakuntzazko behar diren hori betetzen dela ziurtatzeko, eta Bizkaiko Foru Aldundia erantzukizun orotatik salbuetsita geldituko da datuen tratamenduan.

3. Baldin eta entitateak Bizkaiko Foru Aldundiari komunikatu behar badizkio diruz lagundutako jarduerako parte-hartzaileen datuak, orduan Administraziorako eta Gizarte Sustapenerako Zuzendaritza Nagusiak hartuko du tratamendua egiteko ardura, eta datuok integratu egingo dira «Adingabeak babestea» arloaren tratamenduan.

4. Era berean, Erregelamenduaren 13. artikuluan ezarritakoa betez, entitateak, gainera, diruz lagundutako jardueretan parte hartzen dutenei jakinaraziko die beren datuak Bizkaiko Foru Aldundiari jakinaraziko zaizkiola, beste zorro-zerbitzu batzuekiko bateragarritasuna egiaztatzeko eta gizarte-zerbitzuen arreta osoa bermatzeko.

5. Hori guztia albo batera utzi gabe noizbehinka eska daitezkeen datu pertsonalak, dirulaguntza benetan bere xederako erabiltzen dela egiaztatzeko asmoz, dirulaguntzak arautzen dituen araudia betetzeko.

derivarse del Reglamento (UE) 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo, de 27 de abril de 2016, relativo a la protección de las personas físicas en lo que respecta al tratamiento de datos personales y a la libre circulación de estos datos y por el que se deroga la Directiva 95/46 y de la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales y garantía de los derechos digitales.

2. En virtud de lo anterior, adoptará cuantas medidas técnicas y organizativas sean necesarias para garantizar tal cumplimiento quedando la Diputación Foral de Bizkaia eximida de cualquier responsabilidad en el tratamiento de estos datos.

3. En caso de que la entidad deba comunicar a la Diputación Foral de Bizkaia datos de las personas participantes en la actividad subvencionada, la Dirección General de Administración y Promoción Social pasa a actuar como responsable del tratamiento, integrándose dichos datos al tratamiento de "Protección de menores".

4. Asimismo, en cumplimiento de lo establecido en el artículo 13 del Reglamento, la entidad, informará además a las personas participantes de las actividades subvencionadas de que sus datos serán comunicados a la Diputación Foral de Bizkaia, con el objeto de verificar la compatibilidad con otros servicios de cartera y garantizar la atención integral de los servicios sociales.

5. Todo ello sin perjuicio de que puntualmente pudieran requerirse datos personales para la verificación de la efectiva aplicación de la subvención a los fines para los que se concede, en cumplimiento de la normativa reguladora de subvenciones.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: WRW2-3OJS-0WSI-A5XI
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus